


# KULTURKRITIKA

» LIBURUA

## Totemak



Igor Estankona



**Argia**

PERU MAGDALENA

Elkar, 2016

Badaude gai bat jorratzen duten liburuak deskripzioan oinarrituak, badaude hausnartzeko liburuak filosofiaren zidorretan galtzen direnak eta badaude, azkenik, sentitzeko liburuak. Hauen sokakoak iruditu zaizkit beti Peru Magdalenarenak. Berriztarrak ez du hitzik alferrik esaten, ez du pintzelkadarik zentzurik gabe ematen, ez du jantzi bat funtsik gabe aldean eroango. Bere obra artistikoa, bidaiak, bizitzaren gazi-gozoek... denak dira bilaketa estetiko eta are aszetiko baten bide, eta poesia, ezinbestean, arimaren lanabes. *Hutsik* (Elkar, 2008) irakurri nuenean begitandu bazitzaidan ederra zentzu sakratuan, *Argia* honekin ere haren kritika egin nuenean nioen gauza bera diot, alegia, pentsakor eta, era berean, hunkiturik uzteko gaitasuna dauka liburu honek, eternoaren kalitatea dauka: “gau garbian izarrak begiratzea/ zeure azaleko oreztak begiratzea/ unibertsoak errepi-katzen dituen patroiak/ edertasun berari begira/ naiz lokartzen”.

Interesgarriak dira, halaber, sorkuntza poetikoari buruz batez ere liburu aurren-berrian agertzen dituenak, arestian aipatu dugun kezka estetiko esanahiarekin lotuz: “ene poesiak/ apuntatzen duena bilakatu gura luke/ hitz hutsezko ontzia abandonatu/ horitu eta desegingo den liburua utzi/ eta deskribaezina den dardara bezala segi bizirik/ hitzun gutxi batzuen artean oihartzun eginez// hitzez eta kontzeptuz ehizatu ezin dudana/ laino miresgarria da ene poesia/ oraintxe bertan jaiotzen ari den/ zaldikume baten azalaren usaina/ izartu berritan oroitu ezin dudana amets izartua”.

Poesiaren durundi hori, haurtzaroko irudiekin hasi eta errealtatearekin urtzen den argi zuri erre batean bukatzen dena, Magdalenaren ekarpen itzelena da. Osatzeko eta izpiritua indartzeko poesia-eite bat da, kultura baina sotila, eta meditazioaren eta errezuaren antza har dezake uneka. Harrigarriro leuna, arina eta jostagarria da ostera liburua. Esan dezagun, beraz, zabalik egonez gero misteriorik ez daukan mezua dakarrena, bizitzak berak legez: handia ematen du itxura batean, pentsatzeari utzi eta biziz gero *festina lente* doan ibaia da.

Eta kritika labur-labur honetan –zeinaren bidez hertsiki galdegiten baitizuegu *Argia* hartu eta irakurtzeko– azaldu dugun guztia Peru Magdalenari konturatu barik ateratzen zaiola dirudi; hori da lanketaren eta berezkoa daukanaren sintesiaren seinale. ■

*Peru Magdalena Arriaga poeta. Idazlea izateaz gain, bertsolaria eta margolaria ere bada.*

